

ADIMEN-ATZERATASUN LARRIA ETA JOKABIDEZKO PROBLEMA LATZAK DITUZTEN PERTSONEI ZUZENDUTAKO ATENTZIO ESPERIENTZIA

Artikulu honen bidez, esperientzi bat deskribatu nahi da eta, nahiz eta egiten diren zenbait adierazpen datutan oinarritzen diren, ez da gure asmoa esperientzi horren balioespen kuantitatiboa egitea.

ZIOEN ADIERAZPENA

"Fraisoro" Zentroan, adimen-atzeratasun larria eta sakona duten pertsonak, helduak gehienak eta horietatik batzuk jokabidezko problema latzak dituztenak zaintzea; une honetan nahiko desegokia den eta indibidualizatuta dagoen diseinu arkitektonikoa; eta besteak beste, azken urteotan "kezkagarri"tzat jo genezakeen egoera bizi izanaren ondorioz.

Bertako babes gutxien zuten egoilarien guraso baita langileen artean ere, tentsioa eta beldurra sortu zen; "garaituak" sentitzen zirela somatzen zen sarritan eta, hori dela eta, beraz, prebentzio edo errestriziozko ekintzak zabaltzeko joera edota horiek atenditutako gehienengan eragina izatea gerta zitekeen, esaterako, apainketaren edo giroaren zenbait detaile kentzea (egongelako kortinak).

Zerbitzuaren gainerantzeko zentroen garapena ikusita, eta gu zuzentzen gaituen eta "Documentos de Filosofía y principios"en definitutako printzipioen arabera, honako alderdiotan aurrera egitea komeniko litzatekeela erabaki da:

- Zentroan bizi direnen kopurua gutxitzea.

-Zentroa bizi-unitate txikietan edo independenteetan banatzea.

- Langileak zuzendu, motibatu eta prestatzeko ereduak aldatzea, harremanetarako lotura positiboagoi bide emango dien balore eta kaptazio berriak hartzeko.

Baina aldaketa horiek lehen bait lehen egitekoak direnez, behar adina denbora izango ez dugula eta zentroan geroz eta konfliktiboagoak diren zenbait arazoei irtenbide emateko premia ikusita, 1989ko irailean izandako Uliazpi Fundazioaren Gobernu Batzordeak "Fraisoro Zentroko Pisu" sortzea onetsi zuen, aldi baterako, jokabidezko zailtasun larriak dituzten zenbait pertsona bertan bizitzeko.

Horrekin lortu nahieko helburuak ondorengo hauek dira:

- Pertsona kopuru labur batek osatutako talde batekin sistematikoki eta sendo lan egitea, jokabidezko zailtasunen garapenean eragin negatiboa duten barneko eta kanpoko bariablen aldatzeko asmoarekin, esperientzia amaitzerakoan, pertsona horien atentzioari eta tratuari buruz ondorio zehatzagoak atera ahal izateko.
- Aurretik aipatutako zentroko erreforma hori maila guztietan bideragarria izan dadin lortzea.

EMANDAKO PAUSOAK

Egoilariak

Egoilariak hautatzeko prozesua

Espezialdutako atentzio lekura jo ahal izateko pertsonen hautaketa prozesuan zenbait urrats eman dira 1987tik. Lekua "Fraisoro" Zentroa bera izango zenez, bertan atenditutako pertsonak soilik (bost) ametituko zirela, beren diagnostikoaz aparte oinarriz etiologikoa (adimen-atzeratasuna, psikosia, neurosia), beti ere horiek jokabidezko problema latzak (norbera zauritzea eta heteroerasoa) agertzen bazituzten.

Hastapeneko urrats horretan, batez ere beren "portaeragatik" atenditu beharreko pertsona guztiei I.C.A.D. Eskala pasaerazi zitzaien, jokabide asaldariei dagokien atalean horien maiztasuna eta bortiztasuna jasotzen duelarik.

Burututako azterketak

Hurrengo hilabetetarako "Fraisoro"ko pisua martxan jartzea erabaki zen unean, bertan bizitzeko ziren pertsonak aztertzekeo plan bat egin zen. Plan hori honako hauek osatzen zuten:

- a) Pisuan sartu aurretik, zentroko langileek oro hartuta subjektuak aztertzeari (3 hilabetez).
- b) Pisuan sartu aurretik, bertan atendituko zituzten zaindarien (aplikazio gisa-prestakuntza ikastaroan jardutea) subjektuak aztertzeari.

Azterketa horien helburua ondorengoak izan da:

- a) Subjektua aztertzeari:
 - Jokabidezko zailtasunak.
 - Dituen trebetasunak.
- b) Bere ingurua aztertzeari:

Subjektuaren ingurua aztertzeari, inguruneari dagozkion bariablen eta bariablen psikosozialen gainean, hain zuzen ere jokabidezko zailtasunen gertagarritasuna eragiten

eta/edo gehitzen duten horien gainean, Gardner-ek aurkeztutako ereduari jarraituz, guk egindako inbentario bat pasaerazi da.

Jokabidezko zailtasunak aztertzeari, problema antzemango duen formato bat egin da, bertan jokabidearen definizio operatiboa eta topografia, erantzunen kopurua, aurrekoak eta ondorenak barnesartzen direla.

Subjektuak dituen gaitasunak aztertzeari, honako hauek pasaerazi zaizkie:

— Zerbitzuaren behaketa orokorrerako orria.

— Gaitasun sozialen inbentarioa.

— Atsedenerako trebetasunen inbentarioa.

— Nahiago dituen jarduren "cheklis" a.

— Kiernan-en P.V. (komunikaziorako eskala).

— La Vigna-ren "Jokabide asaldarien komunikaziorako funtzioen" eskala.

Bai aurreneko urratsean eta bai bertako pisuko zaindarien burututakoan subjektuak aztertu aurretik, probak nola pasaerazi eta zer zen aztertu nahiekoa jakinerazi eta horretarako prestatu zaie. Hala ere, burututako azterketen balorazio zehatz eta osatua eskaintzeko beharrezkoa da sarritan topatu izan ditugun problemak azpimarratzea, ondoren egingo diren azterketetan soluziobideren bat eman behar bait zaie horiei:

— Zaindaria bajaran dago.

— Zaindaria txandaz aldatzen da.

— Erregistroak egunak dituen ordu guztiak ez ditu jasotzen.

— Erregistroek ikuspegi subjektiboa eskaintzen dute (zenbait jokabidezko problema ez dira jasotzen edo baliogabeko larriagotzat jotzen diren bestelako jokabideen aldean, edo ez dutelako beste pertsonenganako erasorik berekin ekartzen).

— Ez aurrekoak ezta ondorenak ere, ez dira operatiboki zehazten jokabidea bera bezala.

- Behaketak etenda geratzen dira ezinbestean, beste zenbait eginkizun betetzeko.

Hala ere, aipatzekoak dira baita ere sarritan egin ohi ez ditugun zenbait alderdi erregistratzeko egindako ahaleginak eta jarritako borondatea.

Langileak

Lanpostuak bete nahian aurkeztukoak aukeratzeko, 3 zentroetako zerrendan zai zeuden langileen artean hautaketa bat egin zen aurretik. Langile horiek sustituzioetan zuten esperientziagatik baliokoak izan zitezkeen eta nahi adina ezagutza izan zezaketen. Hautagaiek, idatzizko proban, jokabidezko problema larriak eta adimenezko atzeratasun latza eta sakona zutenei zuzendutako atentzio proiektu bat aurkeztu zuten. Aurkeztutako proiektuari buruz hitz egiteko, ondoren, elkarrizketa bana egin zitzaion. Hautaketa prozesu hori behin amaitu eta gero, proiektura egokitutako prestakuntza espezifiko baterako ikastaro bat burutu zuten. Proiektuaren Filosofia, gai teorikoak eta aplikatuak, eta bakoitzaren esperientzian oinarritutako aportazioak jasotzeaz gain, zenbait erregistro egin ziren banakakoaren helburuak eta ekintzarako estrategiak lantzeko.

Esperientzi honetan biltzen diren zirkunstantzia bereziak balioetsiz, eta langileak bajaran edo oporraldian egotetik sortzen diren ondorio negatiboak gutxitzeko asmoz, egutegi baten proposamenean oinarrituta, oporraldien aurretik horrelako egoerak aztertu eta plangintza bat egitea planteatu eta erabaki zen atentzio zuzeneko langileekin batera. Hala, eguberritako oporraldian zehar txandak banantzeaz gain, pisuan egun zatiz soilik lan egingo duten langileekin sustituzio horiek beteaz esperientziari desiatutako jarraitasuna eta sendotasuna eman zaio.

Bestetik, atentzio zuzeneko langileek beren gain hartutako konpromezua balioetsi beharko dugu, ondorengoak lortzeko:

- Atenditzen dituzten pertsonen antzematen zaizkien trebetasunak eta jokabideak etenik gabe behatu eta jasotzea, bai sor daitezkeen lan hipotesi posibleak ezartzearen, bai jarraitzen zaion aurrerabidea ikustearren, eta bai aldizka parte hartzen duten segimenduzko bileren prestakuntzarako ere.

- Tutorearen ardurapean dagoen bakoitzarentzat helburuak lantzen parte hartzea, jokabidezko problemak tratatzeko zirkunstantzia psikosozialen eta inguruneari dagozkion gaineko irakaskuntzan eta aldakuntzan oinarritutako lan metodologia behatuz.

Laguntza teknikoari buruz, zentroko bertako teknikari-zuzendari diren langile horiez gain, medikuntza eta psikopedagogiako koordinatzaileek jardungo dute pisuan.

Familiak

Familiei proiektua planteatzerakoan, proiekturako hautatutako atendituen gurasoekin banakako elkarrizketa bat burutu zen hasieran. Aurreneko harreman formal hartan, pisuan leku bat har zezan atenditua aurkeztu izanaren arrazoiengatik inguruko benetako eta zehaztasuneko informazioa eta proiektuaren zirriborro bat jasotzeaz gain, familia haiek beren zalantzak, aurkako eta aldeko eritziak pertsonalki eta banaka aditzera eman ahal izatea zen asmoa. Aurkeztutako atenditu guztien familiek baietza eman zuten eta oso positibotzat jo zuten aurkeztutako aukera.

Ondoren, hautatutako atendituen familiei bilera baterako dei egin zitzaion. Bilera hartan, proiektua aurkezteko arrazoiengatik, emandako pausoen, langileen, antolakuntzaren eta beste zenbaiten berri zehatza eman zitzaion guztiei, zentroarentzat gainerantzean hortik sor litezkeen planak eta ondorioak adieraziz gain. Familiak elkarren artean eta pisuan parte hartuko zuten atentzio zuzeneko langileak ezagutzera emateko ere balio izan zuen bilera horrek. Familien balorazioa oso positiboa izan zen, baliabideen eta egindako planteamenduen arabera beren seme-alabek bizi kalitate hobea goaz baliatu ahal izango bait ziren. Gure asmoa zera izan da, planteatutako hobekuntzetarako plan orokorraren barruan zedarriz eta zentroko eguneroko bizitzan eta dinamikan erabat barne egokituz, bere planteamenduari dagokion bezala, proiektua ezagutzera eman eta balioestea.

FUNTZIONAMENDURAKO URRATSAK

Antolamendua

Egoilari bakoitzarentzat, bere beharrenduaren eta aurkeztutako helburuen arabera le-

hentasunezko ordutegi bat tajututa dagoen arren, ordutegi hori ondorengo alderdiotan globaldu ahal izango da.

Goizeko 8tan esnatzen dira eta aurretik ezarritako ordenari jarraituz jeikitzen dira. Garbitu eta jaztea. 9,15 inguru gosaltzen dute; jarraian egongelara joaten dira, zaindarien txandaka hamaiketako jaten duten bitartean, bertan musika entzun, telebista ikusi eta aldizkariak begiratzeko.

Eguneko zentrorra joan aurretik, tarte labur bat hartzen dute atendituren batekin banaka pasiatzera joateko.

Pisuko bost egoiliarretatik lauk eguneko zentrorra bertaratu eta dagozkien alorreko taldetan sartzen dira, bosgarren egoilariak pisuan bertan adierazi zaizkion helburuak bere zaindareekin landuko dituen bitartean.

13,30tan, atzera pisura bueltatzen dira jatera. Ondoren, garbitu eta egongelan izaten dira 15,15tak arte. Jarraian eguneko zentrorra itzultzen dira.

Arratsaldean zehar, ordutegia eta iharduerak aldatu egiten dira, egindako irtenaldi konpuruaren arabera.

17,30tan, merienda hartu eta gero atsedenerako iharduerak burutzen dituzte, esaterako, gimnasia, paseoak etab. dutxa hartzeko ordua arte, hau da, 19,30 arte.

20,35tan afaltzen dute, eta ondoren, garbitu eta horietako batzuk oheratu egiten dira, besteak egongelan telebista ikusten geratzen diren bitartean.

Aipagarriena, beharbada, egoilari bakoitzak bere ordutegia izateaz aparte, zentrorra beste kideekin batera eguneko zentrorra bertaratzen direla da.

Banakakoaren garapen programa

Egoilari bakoitzak bere lanerako plana landua du. Plan horren planteamenduan beren zaindarien zuzenean parte hartu dute.

Nahiz eta aipatutako plana Eranskin batetan garatuta dagoen, komenigarria da zenbait alderdi aditzera ematea:

— Planteatutako helburuak egoitzaren egoerari baita eguneko zentrorra dagozkie.

— Bada bertan ekintzarako estrategiari aipamen egiten dion atal bat, bai moldaezinak diren jokabideetarako eta bai beste behar batzuetarako.

— Errefortzuen eta gehien nahieko aktibitateen zerrenda bat ere barnesartzen da.

Funtzionamenduko aurreneko hilabeteetan, lehentasun handiagoa eman zaio egoilari bere ingurura egokitzearen arazoari, baita jokabide mota guztiak behatu eta ondoren horiek erregistratzeari. Horrek balio izan digu jokabidearen arrazoienguruko hipotesiak planteatzeari ekiteko.

Une horretatik aurrera, planteatutako helburuetako batzuek gauzatzeko gertu ginateke.

Segimendurako bilera

Esperientziaren urrats horretan, segimendu jarraia eta sistematikoa egitea pentsatu genuen, sendotu edo berriz egokitu beharreko zenbait alderdi balioesteko. Horrek, hasteko, zera dakar berekin, eguneko errealitatearekin harreman estua mantentzea eta, ondoren, bertatik ateratzen diren ondorioak bideratzea. Horregatik, segimendu eta harreman estu hori izango da, hala badagokio, birplanteamendu posibleak eta/edo hori helburu dela bilerak egitea exigituko duena.

Segimendua egiteak, beharrak antzematea eta langileen etengabeko prestakuntza planteatzea dakar berekin, eta horretan atentzio zuzeneko edo zeharkako langileen eta familien arteko benetako harremana lortzen saiatu behar dugu.

Esperientziaren segimendua, ahalik eta informazio gehien jasotzea eta balioestea helburu zela, txanda bakoitzeko zaindariak eta teknikariek parte hartuko duten bileren bitartez aurrikusi zen. Helburu eta norabide berriak sortzea ahalbidetuko duen segimenduzko bilera horren aurretik, bertarako prestatzeko balio lezakeen teknikarienteko beste bilera bat egingo da aurretik.

Bilera horien aldizkotasuna hilabete eta erdi eta bi hilabete bitartekoa izango litze-

teke, baina beharren arabera egingo dira horietarako deialdiak, ordea. Abenduaren hasieran, teknikarien eta atentzio zuzeneko langileen aurreneko biierak burutu dira dagoeneko.

Teknikarien bileretan ondorengo gai hauen inguruan aritu izan dira: Pisuko helburu orokorren analisia, azterlan posibleak eta medikuen kontrolak, psikopedagogiazko tratamendurako teknikak, egoilariengan antzemandako aldakuntzak. Teknikariak zaindarekin batera egindakoetan ondoko hauek izan dira gaiak: egoilari bakoitzaren analisia (laguntza, portaera, medikazioa), lan experimentalen inguruko informazioa, zergaiti batzuen azalpena.

Segimenduaren emaitzak urtean zehar

Lortutako informazioa eta balorazioa sistematikoa lortzeko beharrezkoa da azpibanaketa bat ataletan egitea; honetan atentziogai den pertsona, langileak, eta familiak hartuko ditugu kontuan. Kapituluaren amaieran, zenbait eritzi eta etorkizunerako norabide adierazi dugu.

Atenditutako pertsonak

Beren jokabide moldaezinari dagokionetan, eskura ditugun datu aipagarrietan murrizketa nabarmenaren berri jaso dugu, jokabide moldaezin nabarmena antzematen zaien pertsonen errestrikzio fisikoarekin irauten duten denboran.

Eta bestetik, unitatean sartu aurretik, pertsona horiei aurreko ebaluazioetan banaka antzeman zitzaizkien jokabide moldaezinen beharakadaren berri jaso dugu ere. Jokabide horien artean hona hemen batzuk: besteak bultzatu, txatxamurkatu, hatzaparka egin, koska egin, uko egin, haserraldiak izan, egoeratik irten, inguruan eraso egin.

Jokabide moldakorrari dagokionetan, pertsonen arteko harremanek, bai kide eta bai langileen artekoek, gora egin dute, era espezifikoan jokabide horiek landu izan ez diren arren. Atsedeneko aktibitateetan ere, partaidetza handiagoa antzeman da. Independentzia pertsonalerako trebetasunetan ere gorakada antzeman da.

Osasunari dagokionetan, beren jokabide auto- eta hetero-erasokorretatik sortu-

tako "istripu" traumatikoei behera egin dute. Orohar, farmako neuroleptikoen eta epilepsiaren kontrako dosia murriztu egin da; bestetik, ordea, gaixotasun barnekurriten kopuruari eta larritasunari dago-kienean, aldaketa nabarmenik ez da izan.

Esan genezake, orohar, hazialdiko nahaste orokorrekin batera adimen-atzeratasun larria eta sakona diagnostikatutako atenditu horiek askoz ere hobeto egokitu direla ingurura, hiperaktibitatearekin atentzio defizitagaratik sortutako nahasteak antzematen zaien horien aldean.

Langileak

Beren lanari eta lortu nahieko helburuei dagokienean, langileek nolabaiteko esperantzarik gordetzen duten arren, berorri galtzeko bidean aurkitzen dira batzutan, langile teknikarien aldeko laguntza urriaren jabe direla sentitzen bait dira, atenditutako bakarren baten jokabideak, atenditzen duten pertsonen batzuzurenganako zenbait erasoalditan aktibitateak garatzea eragozten duenean, hain zuzen ere. Horrelakoetan, zaindariaren egoera animikoa azpiak janda geratzen da gutxinaka.

Eguneroko erritmoak nahiz eta karga psikiko handiagoa dakarren berekin egoitza egoeran lan egiten duten beste kolektiboan aldean, hilabete gehienetan laneragabezia gutxienekoa izan da.

Talde zentzua eta garrantzi handiko benetako harremanena sortu da. Beste talde edo kolektiboanena baino handiagoa gainera. Horrez gain, langile horien hasierako motibazio mailan eta eurek onartutako konpromezu mailan esker, beren buruarekiko baita besteekiko exigentzi maila oso ona lortu da. Bestetik, beste lanposturen batetara aldatzeagatik ez lukeela lan hori utziko adierazterakoan guztiak bat datoz.

Gurasoak

Atenditutako pertsonen familiekin dagoen lotura informaziorako taldeko bilerekin esker sortu da. Beren eritzia balioesteko egindako banakako biierak ere ontzat jo dira, hauetan, bost familientzako prestatutako galdesorta bateratuari egokitzen saiatuz.

Famili horiek diotenez, elkar bizitzeko oraingo ereduak pertsonen arteko harremanak hobekuntza izaten laguntzen du, familia eta etxeko giroa hurbiltzen bait da gehiago. Zera azpimarratzen dute, atentzioa pertsonalagoa eta indibidualizatuagoa dela; hobe atenditzen zaiela; eta seme-alaben jokabidean hobekuntzak somatzen dituztela: "orain ez ditu lehen izaten zituen kolpeak (beren burua larriki zauritzen duten mutikoak)" "lasaiago eta alaiago ikusten dut".

Bestetik, bizi-kalitatea hobetu egin dela diote, ez bakarrik tratuatik, baizik eta inurrunaren kondizioengatik ere: bakoitzaren zuzeneko logelak, komun handiagoak.

Kontuan hartutakoak

Urte honetan zehar, hutsegiteak somatu dira burututako erregistroetan. Horrek zera dakar berekin, jokabide batzuk berriz ere operatiboki definitzea, edo hasieran aldatzeko ez zirenak ere definitzea; edo neurriak hartzeko are eta modu zehatzagoak lortzea, esaterako eskuko mikroordenagailuak, batez ere askotan errepikatzen diren jokabideak erregistratzeko.

Lortu diren aurrerabide garrantzitsuenetako batzuk, hau da, "muga fisikoak ezartze aldiaren, atenditu batzuen beren buruarekiko jokabide zaurigarrien murrizketa" "pertsonen arteko harremanen hobekuntza" ezin izan dira zehatz-mehatz kuantifikatu, unitatea martxan jarri aurretik ez bait dituzte daturik edo neurketa zehatzik eskura izan.

Luzarora jo gabe, komenigarria litzateke burututako erregistroak egokia den programa baten bidez informatizatzea, datuak eskura izateko eta lan hipotesi berriak ezartzeko, are eta nahasiagoak izango bait dira arreta handiz aztertu beharreko bariablenak.

Etorkizuneko norabideak

Atentzio zuzeneko langileei beste egoitz-unitateetan ohizkoa den baino la-

guntza handiagoa eskaini izan zaien arren, laguntza eskakizun handiagoa somatzen da dagozkien teknikari, psikiatra eta psikologoaren aldetik, prestakuntza zabalagoa izateko. Ditzuten beharrei erantzun zuzenaren neurri eta baliabideen eskakizun handiagoa ere antzematen da.

Langile teknikariek etengabe harremanetan izatea beharrezkoa bada ere, atentzio zuzeneko langileak euren artean noiz behinka bilerak antolatu eta ahalbidetzea kontuan hartu beharreko gauza da.

Oinarri ez-abertsiboen ildotik, egokitze, behaketa, erregistro eta tratamenduko aurreneko urrats horren ondoren, harremanetarako trebatze lanari, pertsonen arteko harremanei, eta etxeari eta komunitateari begira partaidetza handiagotzea eman behar harko litzateke zor zaien garrantzia.

Atendituak unitatean behin betirako iraun ez izatearen inguruko erizpidea maitzago hartu behar harko litzateke kontuan. Mugikortasunaren erizpide hori funtsezkoa da, bai planteatutako helburuei eta bai Fundazioaren filosofiari dagokienean, baita bertan lan egiten duten pertsonentzat eragin-garri izan dadin ere.

Lehen aipatu dugun bezala, unitatean langileek irautea eta finkatzea funtsezkoa izan arren, langileari ziurtatu egin behar zaio, estresagatik edo beste edozein arrazoigatik, hala eskatu ezker, zerbitzuaren barruko beste situazioen batetara lekuz aldatu ahal izango zaiola.

Unitate hau experimentaltzat hartzen dugu, eta une honetan, zerbitzuaren behar batzuei erantzuten diela pentsatzen dugu; horregatik, hain zuzen, ez da pertsonentzako behin betirako zerbitzu batzuei bezala edo Fundazio Uliazpin aurki daitezkeen jokabideko problema litzateke eta adimenatzeratasun larria duten pertsonentzako etorkizuneko alternatibak lortzeko eragozpide bat baliatzen hartu behar.

Pere Rueda Quitllet
Garbiñe Legorburuk euskaratua